

emen ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Vitoria-Gasteiz

EKONOMIA
ETA ENPRESA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE ECONOMÍA
Y EMPRESA

GRADU AMAIERAKO LANA

2025-2026 IKASTURTEA

Erreferentziazko Webgunea

Fakultatearen esteka:

[EHU>Ekonomia eta Enpresa Fakultatea>Gradu
Amaierako Lana](#)

Web horretan honako hauek agertzen dira:

- Araudi orokorra
- Gure arautegia
- Beste gai garrantzitsu batzuk
- Atalaren informaziorako esteka
(hurrengo diapositiba)

Erreferentziazko Webgunea

Atalaren esteka:

[EHU](#) › [Ekonomia eta Enpresa Fakultatea](#)
› [Gradu Amaierako Lana](#) › Vitoria-Gasteiz
GRAL

Web horretan honako hauek agertzen dira:

- Eskuliburuak
- Inprimaki garrantzitsuak
- [Egutegia](#)
- Etabar

Zer da GrALa?

- Gradu Amaierako Lana gauzatzeko, ikasle bakoitzak, banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar du, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduiko ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortutako ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira.
- GRALa titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari eta, oro har, ikaslearen ikasketa arlokoak izango diren datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezen.
- GrALa, EAEko hizkuntza ofizialetako batean (gaztelaniaz eta euskaraz) **nahiz atzerriko hizkuntzaren batean (ingelesez edo eskaintzen den beste hizkuntzaren batean) egin daiteke.**

GrAL esleitzeko, matrikulatzeko eta
defendatzeko baldintzen laburpena (GAKOA)

Esleipenik gabe, ezin da matrikulatu.

Matrikularik gabe, ezin da defentsa eskatu.

Defentsa eskaerarik gabe, ezin da defendatu.

GrAL esleitzeko, matrikulatzeko eta defendatzeko baldintzen laburpena (GAKOA)

- GrALa defendatzeko eta ebaluatzeko EZ DA ZERTAN izan behar ikasketa-planeko gai guztiak gaindituta.
- Lanaren **gaia esleitzeko**, ezinbestekoa da **gradu**ko 180 kreditu gaindituta izatea, gradu oinarritzko gaien modulua barne; **288 kreditu Gradu Bikoitzean**, barne hartuta gradu bietako oinarritzko gaiak.
- **GRALaren matrikula** egin ahal izateko, ikasleak **esleituta izan behar du gaia** eta zuzendaria; horrez gain, **matrikulatuta izan behar ditu ikasketa plana bukatzeko geratzen zaizkion irakasgai guztiak**, hau da: matrikulatuta izan behar ditu titulazioa bukatzeko geratzen zaizkion kreditu guztiak, aitorgarriak izan daitezkeen hautazko kredituak izan ezik, 24 kreditu EAZ-ren kasuan.
- **Matrikulak bi deialdi ofizialetara aurkezteko eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean, ikastegian onartutako egutegi akademikoan zehaztutakoarekin bat etorrita.**

GrAL esleitzeko, matrikulatzeko eta defendatzeko baldintzen laburpena (GAKOA)

GrALaren matrikula UPV/EHUK horretarako ezartzen duen epean egingo da. A priori, automatrikulan, baina, automatrikulan matrikulatu ez bazara (edozein arrazoiengatik)...

1/ GrALa baino falta ez bazaizu, urrian jarritako epean matrikulatu behar duzu, beranduenez. [Ez da ondorengo matrikularik egingo ikasle EZ direnentzat –eta ez zara ikasle ezertan matrikulatzen ez bazara–.]

2/ GrALa EZ bada geratzen zaizun gauza bakarra, eta matrikulatzeko baldintzak betetzen badituzu, beste bi epe dituzu eskura, zerbait matrikulatuta baldin baduzu:

2.1/ Bat urtarrilean.

2.2/ Beste bat ekainean.

IZEN-EMATEA

GrALeko esleipena egin ahal izateko, beharrezkoa da **izen-ematea egitea**, Fakultatearen Web orriaren bidez argitaratzen diren egunetan.

Gai bat esleitzeko, beharrezkoa izango da titulazioko 180 kreditu gutxienez gaindituta izatea, graduako oinarrizko ikasgaien modulua barne; 288 Gradu Bikoitzen kasuan, bi graduetakoko oinarrizko ikasgaiak barne.

Nahitaezkoa da GrALaren gaia esleituta izatea matrikula egin ahal izateko.

GAIA ESLEITZEA

Bi era daude GRALerako izena emateko/gaia esleitzeko:

- **Irakaslearekin ados jarrita ematea izena eta esleitzea gaia.**
- **GRALerako eskaintza irekitik aukeratzea izena emateko/gaia esleitzeko.**

GAIA ESLEITZEA

A) Aurretiko izen-ematea/GrAL esleitzea, hitzarmen bidez

Ikasleak GrAL Batzordearen aurrean gai bat, hizkuntza eta 5. artikuluko baldintzak betetzen dituen irakasle baten gidaritza konpromisoa duen proposamena aurkeztu ahal izango du, horretarako prestatutako ereduzko inprimakia betez.

Epez kanpoko proposamenak ez dira kontuan hartuko, ezta ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak ere (tutorearen sinadura, eranskina...).

Eskaera onartuz gero, ikasleari automatikoki esleituko zaio proposatu zuen GrALa, eta ez da esleipen libreen deialdira joango.

Egindako proposamen librea ukatzen bazaio, ikasleak esleipen libreen deialdira jo beharko du.

GAIA ESLEITZEA

B) Aurretiko izen-ematea/eskaintza libreko GrAL esleitzea
GrALeko gaien zerrenda argitaratuko da, eskaintza libre gisa, eta
ikasleek haien artean aukeratuko dute, batez besteko notaren
arabera, matrikula egiteko unean.

Noiz?

Bi epe daude.

- ❖ Bat urrian, hilaren hasieran egiten da izen-ematea, eta hilaren erdialdean aukeratzen dira gaiak. Ekitaldi publikoan esleitzen dira, aurrez aurre joan behar dute gaiak aukeratzeko.
- ❖ Beste bat otsaila-martxoan, antzeko funtzionamenduarekin.

GAIA ESLEITZEA

GRALa ofiziala ez den hizkuntza batean egin ahal izateko, ikasleak izena ematean egiaztatuta izan beharko du kasuan kasuko hizkuntzako gutxien dela B2 maila.

GRALerako esleitutako lanak eta zuzendariaren izendapenak bi urteko iraupena izango du. Epe hori amaituta, GrAL Batzordearen aurrean ikasleak hala eskatzen badu eta zuzendariak espresuki onartzen badu, GrALa berritu ahal izango da.

Berriztatzen ez bada, ikaslea gaia esleitzeko eta zuzendaritza egiteko prozedurara pasako da, eta beste izen-emate bat egingo du.

GAIA ESLEITZEA

Eskaintza librera joan eta **bertaratu ezin bada**, beste pertsona bati eskuordetu behar zaio. Pertsona horrek ordezkatzeko duen pertsonaren NANaren fotokopia eta bere NANA ekarri beharko ditu, eta eskabide orokor bat bete beharko du, adieraziz (izen-abizenak eta NAN zenbakia) nori ematen dion ordezkaritza ekitaldi honetarako (gure Idazkaritzako webgunean aurki daiteke dokumentu hori):

BAIMENA AUTORIZACION

Eskaintza librera joaten denak eskaintzen diren **gaiak ekarri** behar ditu, **aukeratzeko nahiaren arabera ordenatuta**; izan ere, batz-besteako nota-ordenaren arabera aukeratuko dira, eta egokitzen zaionean esan beharko du zein gai eta zein hizkuntzatan ematea nahi duen (une horretarako libre daudenen artean).

BESTE GAI BATZUK

- **GrAL eta HIZKUNTZA-GAITASUNA**
- GrALa hizkuntza ofizial batean ez bada, B2 maila eskatzen denez, ez da hori bide bat egiaztatzeko. Hori bai, ofiziala ez den hizkuntza batean egitea aukeratzen bada, lanaren %100 egin behar da, baita atzerriko hizkuntzan defendatzea ere.
- Izen-ematea eskatzean, eskaintza librea zein akordioa izan, B2 duzula egiaztatzen duen ziurtagiri originala eraman behar duzu (eta kopia bat, originala egiaztatu ondoren, ikastegiko teknikariak kopia artxibatuko du).

BESTE GAI BATZUK

- GRAL ETA MUGIKORTASUN-PROGRAMETAN DAUDEN IKASLEAK
- GrALa defendatzeko matrikula beharrezkoa da eta matrikulatzeko gai bat esleituta ere beharrezkoa da.
- Eta horien datak ez daude mugikortasun-programan egotearen edo ez egotearen mende; beraz, beste unibertsitateetan egindako irakasgaien konbalidazio ofiziala otsailaren amaieratik aurrera atzeratu ohi denez (beti edo ia), 4. mailan mugikortasun-programa baten bidez joan behar duenak jakin behar du ez duela gairik hautatuko hurrengo ikasturtera arte, baldin eta dena txukun ez badoa (180 kreditu onartu) edo bigarren lauhilekoan joan eta 180 kreditu horietara lehenago iristen ez bada.